


ERTZAINTZAREN 1. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA (Europako Markoko B2 maila)
(Deialdia: 2012-02-22)

AZTERKETARI BURUZKO ARGIBIDEAK

➤ **Azterketak bi proba izango ditu**



➤ **Azterketaren deskripzioa**

		TREBETASUNA	EGINBEHARREKO ARIKETAK
1.	IDATZIZKO proba	IRAKURMENA	-Hiru irakurgai gutxienez. -Ariketa mota: Aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, loturak egin, hutsuneak bete,...
		IDAZMENA	Bi ariketa: <u>1. ariketa:</u> Ertzain lanarekin zerikusia izango du. Gertatutako zerbaiten azalpena egin beharko da, esate baterako, salaketa bat, gertakari baten txostena, deklarazio bat, ... <u>2. ariketa:</u> Gutun formala izango da, azalpenak, kexak, arrazoiak, ikuspuntuak, proposamenak, ... adierazteko xedearekin.
2.	AHOZKO proba	ENTZUMENA	- Hiru entzungai gutxienez. - Ariketa motak: aukera anitzeko galderak, egia/gezurra, loturak egin, hutsuneak bete,...
		MINTZAMENA	Bi azterketari batera arituko dira eta bi ariketa egingo dituzte: <u>1. ariketa:</u> (Bakarrizketa. Gai baten azalpena eta iritzia) Aldez aurretik prestatutako gai baten garapena egingo du azterketari bakoitzak, 4-5 minutuz. Ondoren aztertzaileak entzuten egon den azterketariari entzundakoari buruzko galderaren bat egingo dio. <u>2. ariketa:</u> (Herritarraren eta ertzainaren arteko elkarrizketa) Azterketariei ertzain egoera bat emango zaie eta bakoitzari rola banatu. Minutu bat emango zaie prestatzeko, eta ondoren 5-6 minututan elkarrizketa garatu beharko dute.